

SALAKETATIK EKINTZARA

GARA GEHIGARRIA

2022/11/25

LOADING...





REPORTAJE

Tres muertes, 6.053 denuncias

Otro año más, este 25 de noviembre hay que volver a hablar de muerte y violencia. Sara Pina, Felisa S. y María Luisa Larrañaga son las tres mujeres que han muerto este año en Euskal Herria a manos de sus parejas o de sus hijos, mientras al menos otras ocho han sido hospitalizadas con heridas graves tras ser agredidas. Son la punta del iceberg de un problema que, en lo que va de año, contabiliza 6.053 denuncias en Hego Euskal Herria.



Concentración en Elgoibar por la muerte de María Luisa Larrañaga, que había sido vecina de este municipio.

Jon URBE | FOKU

J.S. | DONOSTIA

La violencia contra la mujer tiene múltiples expresiones, desde la más explícita y brutal hasta la más velada y sutil. Entre las primeras, de enero a setiembre de este año se han registrado un total de 6.053 delitos de violencia contra las mujeres, 4.591 en Araba Bizkaia y Gipuzkoa y 1.462 en Nafarroa.

Los casos más trágicos han sido los de las muertes de Sara Pina Yeregui, Felisa S. y María Luisa Larrañaga. Sara Pina, de 38 años y natural de Cortes, fue encontrada muerta en su domicilio de Tudela el 10 de enero con signos de haber sido acuchillada. Al día siguiente, su marido, José María Uruñuela, fue detenido cerca de Burdeos, a donde había huido tras cometer el crimen.

La segunda muerte se produjo el 26 de abril en el hospital de Cruces, a donde Felisa S., de 90 años, fue trasladada en estado muy grave. Su hijo, de 53 años, alegó que las heridas que presentaba se debían a una caída, pero finalmente fue detenido mes y medio después como responsable de la muerte violenta de su madre.

La tercera muerte violenta se produjo el 25 de setiembre en Benidorm, donde la guipuzcoana María Luisa Larrañaga, de 68 años y natural de Sorluze, murió como consecuencia de las cuchilladas que le asestó su marido, quien posteriormente se quitó la vida estrellando su coche contra una grúa.

Además de estas muertes, en lo que va de año se han producido varios intentos de homicidio que han provocado la hospitalización de las víctimas. Es el caso de una mujer que tuvo que ser ingresada en febrero en Txagorritxu tras ser agredida en su domicilio por su expareja, un hombre de 29 años, o el de otra joven que tuvo que ser ingresada en un centro hospitalario de la capital alavesa en marzo tras sufrir un aborto en su domicilio, un caso en el que su pareja fue detenida.

En Bilbo, otra mujer tuvo que ser hospitalizada en Basurto con lesiones en un ojo y hematomas por todo el cuerpo tras ser agredida en mayo por su pareja, un hombre de 30 años que fue detenido, y al mes siguiente otro hombre de 36 fue detenido en la misma capital por intentar matar a su pareja incendiando la lonja-vivienda donde dormían jun-

to a una hija de corta edad. La mujer tuvo que ser ingresada en la unidad de grandes quemados de Cruces con pronóstico grave.

En Donostia, por otra parte, un varón de 26 años fue encarcelado en agosto por agredir a su pareja con un arma blanca en un domicilio de la capital. La víctima tuvo que ser trasladada al hospital con lesiones de gravedad en la espalda y el cuello.

En la localidad navarra de Arguedas, un hombre de 50 años fue detenido en setiembre por apuñalar cuatro veces a su pareja, de 44 años, mientras estaba con sus hijas menores de 11 y 13 años. Fue evacuada al hospital de Tudela con pronóstico reservado.

Y en noviembre, un hombre de 37 años fue encarcelado después de que agrediese con un arma blanca a su pareja en el transcurso de una discusión en Santurtzi. La víctima tuvo que ser trasladada a Cruces con diferentes cortes sangrantes en el cuello y en un brazo. Asimismo, otro hombre de 38 años fue encarcelado tras provocar en Galdakao el incendio en la vivienda de su pareja, víctima de malos tratos de manera reiterada.

Las agresiones por parte de las parejas o ex parejas se han producido también en las ca-

**ERAGIN DEZAGUN
BERDINTASUNEAN,
INDARKERIA MATXISTARI
AURRE EGITEKO.**

Azpeitian, indarkeria matxistari ez.





reteras, como el caso de un vecino de Etxalar que en enero disparó con un rifle contra el coche en el que su pareja, con la que estaba en trámites de separación, se dirigía a trabajar. La mujer resultó ilesa y el hombre fue detenido, así como una mujer con la que tenía relación. También en Nafarroa, un hombre fue detenido en abril en Corella por chocar su vehículo con el del a víctima, con intención de sacarla de la vía.

DELITOS CONTRA LA LIBERTAD SEXUAL

Los casos de violencia ejercida por la pareja o expareja representan el mayor número de denuncias (3.327 de las 4.591 registradas por la Ertzaintza), seguido de las agresiones en el ámbito familiar (867) y de los delitos contra la libertad sexual (397). Entre estos últimos destacaron las agresiones sexuales, que entre enero y setiembre han pasado de 33 a 58 casos, un 75% más.

Los casos más graves se han producido en localidades como Barakaldo, donde un hombre de 34 años ingresaba en prisión como autor de cinco violaciones en este municipio y dos más en Sestao, además de diversos delitos de lesiones y contra el patrimonio. El Consistorio de Barakaldo denunció que este individuo había sido detenido 30 veces, pese a lo cual los jueces seguían dejando en libertad una y otra vez.

Este año tampoco se ha librado de las agresiones grupales, como la sufrida en febrero por una joven en un portal de Barakaldo por parte de cuatro jóvenes, que además le robaron el móvil y el bolso; o la padecida por una joven de 19 años en el barrio bilbaino de Bolueta, donde fue rodeada por cinco individuos que le robaron el bolso y le sometieron a tocamientos.

Estas agresiones han afectado también a menores, como es el caso de dos jóvenes de 13 y 16 años que en febrero denunciaron haber sido víctimas de agresiones sexuales en Bilbo y Ugao. En el primer caso, la víctima fue abordada por dos hombres en una parada de autobús y en el segundo caso, por un hombre de unos 25 años que la violó. Otras localidades donde se han producido delitos contra la libertad sexual son Portugalete, Antsoain, Hondarribia, Tolosa, Donostia, Ortuella, Tuteria, Beasain, Bilbo, Iruñea, Tafalla, Zizurkil, Baiona, Gasteiz o Irun.

Las agresiones sexuales se han producido también en entornos laborales, como es el caso de una trabajadora doméstica agredida por el hombre de 71 años que le había contratado; la trabajadora de limpieza del Metro de Bilbo a la que un joven de 22 años acosó y realizó tocamientos en la estación de Sestao; o la empleada de la cafetería del Hospital de Nafarroa, agredida por un individuo en los baños del hospital.

PINCHAZOS EN FIESTAS: UN FENÓMENO NUEVO CON MUCHOS PUNTOS POR ACLARAR

Las expresiones de violencia machista han registrado este verano un fenómeno desconocido hasta la fecha en estas latitudes: los pinchazos a mujeres que disfrutan, de noche, de la fiesta. Según datos oficiales, en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa más de 120 mujeres afirmaron haber recibido pinchazos, mientras que solo en fiestas de Baiona se produjeron más de un centenar de casos y, en Nafarroa, varias decenas en diferentes pueblos en fiestas, incluidos los sanfermines. Ninguno de los presuntos autores fue detenido, pese a que varios de ellos fueron identificados, como un hombre que portaba una jeringuilla en la Aste Nagusia de Bilbo, un hecho del que la Policía Municipal solo informó después de que fuese filtrado por un medio de comunicación.


Se trata de un fenómeno del que ya se tenía conocimiento en otros países, y que este verano ha irrumpido de lleno en Euskal Herria, causando gran alarma entre la población. Pese a que en un primer momento se especuló con la posibilidad de que el objetivo de los pinchazos fuese buscar la sumisión química de la víctima, los análisis médicos realizados han descartado esta posibilidad. Según el Gobierno Vasco, en ninguno de los casos analizados se han encontrado restos de sustancias tóxicas. Pero el riesgo de adquirir una enfermedad como consecuencia de utilizar una aguja infectada siempre ha estado presente.

Por todo ello, y aunque las investigaciones policiales no han arrojado ningún resultado, todo parece indicar que la finalidad última es amedrentar a las mujeres que disfrutan de la fiesta para expulsarlas del ocio nocturno.

Con el fin de hacer frente a esta situación, prácticamente todos los municipios en fiestas han puesto en marcha protocolos especiales para atender a las víctimas, un hecho que terminó llevando al Juzgado a dos militantes feministas de Algorta por coordinar la atención a una menor que había denunciado un pinchazo. La Ertzaintza les acusó de «obstaculizar» la intervención policial.



Concentración de apoyo a las mujeres acusadas de «obstaculizar» la intervención policial tras un pinchazo en Algorta.



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

Manifestazioa HERNANIN

19:30ean • Azaroak 25 plazatik

Hernaniko
Udala



NEXT ALGORTA

Telletxe (frente nº4). **ALGORTA**
 t 685 70.90.63
 www.nextalgorta.com

Instagram Facebook WhatsApp

BIGISTAK
 BIKILADENDA
 OSTARRIA

(Junto parada autobus)

© 94 602 61 83
 General Castaños, 25. 48920 PORTUGALETE

IXIMINTXE
 especialidad en PINTXOS y CAFE

T 94 440 25 53
 Basauri Kalea, 10
 48970 BASAURI

BAR AMAIA

> Pintxoak egunero
 > Athleticen partida guztiak
 > Giro alaia eta jatorra

Fauste kalea, 13. Arizgoiko plaza.
 679 427 595

ESTANCO - TIMBRE

Arriluzea

Antonio Trueba, 7. BASAURI T. 94 449 41 10

«Beldurra eta kontrolaren aurrean, justizia feminista»

Euskal Herriko Mugimendu Feministak mobilizaziorako deia egin du,

elkar zaindu eta elkar babestea bide bakarra dela mahaigaineratzeko.

Estitxu ZABALA | DONOSTIA

Indarkeria matxistak bere horretan jarraitzen duela gogor salatu du aurten ere Euskal Herriko Mugimendu Feministak: «Nazkatuta gaude urtero salaketa eta aldarri berak egiteaz». Baina mugimenduko kideek argi dute garaipena nola lortuko duten: «Soilik borroka, sareteaz eta antolakuntzaz izango da posible aurrera egitea». Indarkeriarekin bukatzearen ardura denona da mugimenduari esanetan: «Eraldaketa gure esku dago eta horretarako feminismoan kolektiboki borrokatzen jarraitu behar dugu». Ideia horiekin azaroaren 25ean eta 26an hainbat protesta egingo dituzte, hiriz hiri, herriz herri eta auzoz auzo.

Erasotuak diren heinean, elkar zaindu eta elkar babestea bide bakarra dela mahaigaineratu dute: «Justizia gure gain hartuko dugu, eta autodefentsan sakontzen jarraituko dugu», esan dute.

Mugimenduak agerraldia egin zuen Bilbon astelehenean, eta hala salatu zuten: «Sistema heteropatriarkal kapitalistak gure bizitzak kolpatzen jarraitzen du. Badakigu sortzen dugun olatu bakoitzean horiek gertatzeko mekanismoak martxan jartzen dituela sistemak». Horregatik, indarkeriaz gain, salatu zituzten instituzioen biolentzia, lan arlokoa, etxekoa, edo heteroarautik ateratzeagatik jasotzen dutena.

«Indarkeria matxistaren aurka, justizia feminista» leloa aukeratu du Indarkeria Sexistaren Kontrako Emakumeon Plataformak, Iruñeko mobilizaziorako. Plataformak joan den astean egindako agerraldian, Ederne Erreak horrela adierazi zuen: «Aurten 'ofizialki' Euskal Herrian hiru emakume erail dituzte, 38 espainiar Estatuan eta ehunka mundu osoan. Guztiak ez gara indarkeria fisiko honen biktimak, baina indarkeria psikologikoa, sexuala, ekonomikoa, instituzionala... denak dira



Mobilizazioak aurkezteko agerraldia, astelehenean Bilbon. Monika DEL VALLE

GAUR HIRIBURUETAN

• **BILBO: 19:00etan,**
Jesusen Bihotzean.

• **DONOSTIA: 19:00etan,**
Bulebarrean.

• **GASTEIZ: 19:00etan,**
San Anton plazan.

• **IRUÑEA: 20:00etan,**
Gaztelu plazan.

• **BAIONA: Azaroaren 26an, 17:00etan,**
Herriko Etxea plazan.

gizonengandik». Oraindik ere adierazpen zuzenagoak egin zituen Erreak: «Gutarrak dira jotzen, umiliatzen, bortxatzen... gaituztenak».

Itxaron zerrendarik ez

Bortizkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeek baliabideak behar dituzte mugimenduen ustez: «Klase politikoak ezin du lazo morea soinean jarri eta elkarretaratzetan parte hartu, arreta integralean, abegietxe eta pisuetan sei hilabeteko itxarote zerrendak dituen bitartean. Baliabide integralak, publikoak eta kalitatezkoak behar ditugu, itxaron zerrendarik gabek, baldintza duinak dituztenak», nabarmendu zuen Erreak.

Gainera, gogor salatu zuten biktimen euren bertsioa zalan-tzan jartzen duten «galdeketa bortitzak» jasaten dituztela, horrela, berriro ere biktima bihurtzen dituztela, baita umildu eta gutxietsi ere.

Ingruan ez dute inongo bortizkeriarik nahi, eta gizonei mezu zuzen bat bidali diete: «Gu ez erasotu edo konplize izateari utzi». Instituzioei, aldiz, «haien lana egitea» exijitu diete.

indarkeria matxistaren aurpegiak eta korapilatu egiten dira».

Emakume gehienek jasaten duten indarkeria ezagutzen dituzten gizonen eskuetatik datorrela diote: «Gure lagun, bikotekide, senide, lankide edo militantzia kideak diren



ELKARRIZKETA

Bea ILARDIA
 ABOKATUA

Beatriz Ilardia 2003an kolegiatu zen eta sortu zenetik txanda bereziko abokatu da. Lankideak eta biek emakumeen aurkako indarkeria kasuak eramaten dituen Magala abokatu bulegoa hartu zuten. EH Bilduko batzarkide gisa salatu izan du emakume horiek Administrazioa jotzean bizi ohi duten oztopo segida. Horri buruz gehiago jakiteko jarri da GARA berarekin harremanetan. «Frustrazio» asko eragiten badio ere, pozgarria zaio «gutxieneko aletxoak jarri izana sentitzea».

«Alde penala aldatu da, baina muinera ez bagoaz, gizartea ez da sekula aldatuko»



Aritz LOIOLA | FOKU

Maitane ALDANONDO | BILBO

Indarkeria matxista jasaten duten emakumeek «labirinto burokratiko bat» pairatzen dutela salatu izan duzu. Zein da ibilbide hori? Emakume horiek leku askotatik jotzen dute Administrazioa. Gizarte zerbitzuen baliabideak erabiltzen dituztenek harreman handia izaten dute gizarte langileekin eta gauza asko kontatzen dizkiete edo atzematen zaizkie, sarri honen berri izaten dute. Osasungintzako langileen bidez

ere sarbide bat izaten dute. Maiz eurek ez dute salatzen, baina gauzak kontatzen dituzte edo medikuek sumatzen dute zerbait badagoela. Salaketa bat jartzea erabakitzen duenean, komisariara edo guardiako epaitegira joaten dira. Hor, teorian, txanda bereziko abokatu bat deitu beharko luke poliziak emakumeak deklaratu aurretik. Ondoren, hala erabakiko balu, salaketa jartzen da. Aldentze neurri bat eskatuko balu, paraleloki, 24 edo 48 orduren buruan agerraldia burutzen da Emakumeen Kontrako Indarkeria Epaitegian edo guardiakoan, asteburua bada.

Oso luze egiten da; sarri goizaldean jarri du salaketa eta ordu gutxira epaitegian egon behar du. Lo egin gabe, urduri, beldurtuta... dago. Hitzordua izanda ere, batez beste, bost edo sei ordu pasatzen ditugu han. Leihoak zabaltu ezin dituzten gela batean egoten dira, komunera joan, kafe bat edo ura nahi badute baimena eskatu behar dute. Makina duela urte gutxi jarri dute, Gasteizko Legebiltzarretik erronda bat egin zuten epaitegiek nola funtzionatzen duten ikusteko eta egin zuten gauza bakarra hori izan zen. Guzti horren ondo-

**EZ ZAUDE
BAKARRIK,
ASKE
BIZI!**



Legutitoko udala



ELKARRIZKETA

ren, papertxo bat ematen diete biktima gisa dituzten eskubideekin.

Inork ez die azaltzen zer zerbitzutara jo dezaketen edo zer etorriko den ondoren?

Salaketa jartzen dutenean beldurtuta daude eta beldur horrekin amaitu nahi dute, biziraupenean bakarrik pentsatzen ari dira. Baten batek eskaini beharko lioke laguntza erreala, ez «hone-tarako eskubidea duzu» dioen paper bat. Administrazioaren lana hor hasi beharko litzateke, ondoan pertsona bat egonda bere erritmoak errespetatu, bere beharrianak aztertu eta labirinto horretan laguntzeko. Berotasun eta laguntza horrek fisikoa ere izan behar du. Figura hori eskatu zuen EH Bilduk, erreferentzia-zko pertsona bat, lehen minututik gidatuko duena burokrasia korapilo horretan, ze behar dituen ikusiko duena, ez direla paper batean agertzen direna, zehatzak baizik.

Salaketa bat jartzen dutenean ez da eraso bat jasan duten lehen eguna, zaurgarritasun egoera itzel batean daude. Sarri askotan ez dakite nola bideratu beraien bizitza, nola aterako diren, ez daukate alde aurretik pentsatutako planik. Horri gehitzen badiozu ume txikiak dituztela, bakartuak daudela, familiarik ez daudakela, arazo ekonomikoak dituztela edo hizkuntza ez dakitela...

Zer gertatzen da emakume horiekin?

Behin emakume marrokiar bat artatu nuen, oso muturreko egoeran bizi zena. Hain larri zen egoera, bere senarra hiltzen saiatu zela. Gaztelaniaz ez zekienez, epaiketa egunean itzultzaile bat ekarri zioten, baina konturatu ginen ez zuela beste inolako laguntzarik eskatu. Horregatik, itzultzailea eta biok gizarte zerbitzuetara bideratzea erabaki genuen hurrengo astean. Aldundiko arreta psikologikorako hitzordua hartzen ere saiatu ginen, baina ukatu egin ziguten ez zuelako ez gaztelaniaz ez ingelesez hitzegiten. Beraz, hainbat emakumek aipatzen du, ibilbide judiziala amaitu eta gero, emaitza jakin izan balu, ez lukeela salaketarik jarriko. Horrek agerian uzten du guztion porrota, administrazioak ez duelako lortzen egoera horretatik ateratzeko emakume hauek dituzten beharrak asebetetzen.

Salaketa jarri izana damutzen zaie.

Salaketak tresna izan beharko luke, giltza bat. «Zuk pauso bat eman eta gu hemen gaude; ez zara eroriko. Administrazioek igortzen duten mezua da salatzeke, badirudi helburua dela



«Salaketa jartzen dutenean beldurtuta daude eta beldur horrekin amaitu nahi dute, biziraupenean bakarrik pentsatzen ari dira. Baten batek eskaini beharko lioke laguntza erreala, ez 'honetarako eskubidea duzu' dioen paper bat».

«Administrazioaren lana hor hasi beharko litzateke, ondoan pertsona bat egonda bere erritmoak errespetatu, bere beharrianak aztertu eta labirinto horretan laguntzeko. Berotasun eta laguntza horrek fisikoa ere izan behar du».

«Administrazioek igortzen duten mezua da salatu dezatela. Baina inork ez du jasotzen ondoren gertatzen zaienari buruzko daturik. Non daude? Galdetu al diegu berriro egingo luketen? Ondo joan al zaizu? Ez dago daturik. Zergatik ez? Emaitzak oso garrantzak izango liratekeelako.

emakume gehiagok egitea. Baina inork ez du jasotzen ondoren gertatzen zaienari buruzko daturik. Non daude? Galdetu al diegu berriro egingo luketen? Zerk huts egin du zure kasuan? Ondo joan al zaizu? Ez dago daturik. Zergatik ez? Emaitzak oso garrantzak izango liratekeelako.

Batzuentzat salaketa da irteera, beste batzuentzat dibortzio soil nahikoa da. Emakume hori da erdigunean jarri behar duguna, galdetu beharko zaio eta ikusi bere benetako beharrianak zeintzuk diren; agian, ez da salaketa jarri eta prozesu horretatik pasatzera behartzea. Beste gauza batzuk jartzen ditugu erdigunean.

Kosta egiten al zaie gertatutakoa onartzea?

Emakume bati gehien kostatzen zaiona bere burua tratatu txarren biktima bezala ikustea da. Ubeldutako begi bat ez bazuen, ez zuen ikusten. Hori aldatu da, ikusi da beste indarkeria batzuk ere badiela; baina iruditzen zait pedagogia falta dela. Legearen ontasunen artean, integrala dela dago, baina garatu den bakarra alde penala da: epaitegi berezituak sortu, prozedura penala aldatu... Hezkuntza edo osasungintza ez da ezer egin, eta hor egin behar zen. Alde penala adabakia da gizartea aldatu bitartean; muinera ez bagoaz, ez da sekula aldatuko. Umeak txikiak direnetik ez badugu lantzen indarkeria gabeko gizarte bat sortzeko kontzientzia, ez da ezer aldatuko.

Marraztu duzun bidea gogorra eta hotza da. Nork egiten die huts emakume horiei?

Iruditzen zait denek. Ez diot borondaterik ez dagoenik, baina gakoetako bat formazio falta orokorra da: polizia, abokatuak, epaileak, fiskalak, Osakidetzako langileak... Denoi falta zaigu heziketa berezitu eta jarraitua, eta horrek ondorio pila dakartza. Emakume hauekin lanean dabiltzan langile guztiek behar dute, jakiteko norekin ari diren: kontraesanak dituela bere lekukotzan, beldurrak, ziur asko koherentzia falta, urteetan bizitakoagatik; hitz jarria edo isiltasuna, ez dio garrantzia ematen garrantzia eman beharrekoari... Hau da, sistemarentzat ez dago biktima perfekturik. Sintomatologiaren zantzuak dira. Enpatia sentitu behar dute, gizatasuna, berarekin gaudela, badutela nori eutsi; eta ez dute sentitzen. Etengabe epaitzen ditugu konturatu gabe eta eurak lotsatu, beldurtu... egiten dira eta berriro barrura jotzen dute, isolatu egiten dira. Eta eraso sexualen kasuan lagarriagoa da, are gehiago sumisio kimikopean bada; oso kuestionatuak dira hasieratik.





«Sistema patriarkala birkokatu egiten da etengabe»



Aritz LOIOLA | FOKU

Azken urteotan, indarkeriarekiko jarrera aldatu bada ere, egiteko asko dagoela uste du Ilardiak; izan ere, lortutako aurrerapausoen aurrean, horien aurka egiteko mezu eta oztopo berriak sortzen ditu matxismoak.

Gabezia handia izanda ere, egoera hobetu denik nabaritu al duzu?

Gizartean beste betaurreko batzuekin ikusten dugu indarkeria, garai batean onartzen zena egun ez da toleratzen. Ezin dut nire emaztea jipoitu eta kontatu. Hala ere, nire sentsazioa askotan da formak baino ez direla aldatu, gauza batzuk bai, baina asko hobetu behar dira. Egia da ere matxismoa, sistema patriarkala birkokatu egiten dela etengabe. Aurrerapauso bat egiten badugu, beraiek egoerara moldatzeko beste bat.

2004ko lege integrala indarrean sartzea inflexio puntu bat izan zen, kontzientziazio garaia. Sistemaren beste aldeak zer egin zuen? Birkokatu. Nola? Salaketa faltsuak. Hutsaldu egin behar zen arazoa: 1.000 salaketatik 500 absoluzioak direnez, 500 faltsuak dira. Emakumeek salaketa faltsuak egiten dituzte gaiztoak direlako, sorginak, bikotekidea kaltetu nahi dutelako... Mezu hori barruraino sartu zen, nahiz eta enpirikoki frogatu ez dela horrela, salaketa faltsuak %0,07 direla.

Ondoren, zaintza partekatua izan zen. Zaintza eskatu behar den eskubidea da, hau da, epaileak ezin dizu eman eskatu gabe. Gizonezkoek normalean eskatzen ez zutenek, ez zieten ematen; baina mezua zen epaileek kustodia beti amei ematen zirela. Eskatzen dutenak direlako! Falazia hori barruraino sartu zen. Emakumeak gaiztoak gara eta haurrentzat onena partekatutako kustodia da. Noski, baldin eta familia horretan hala izan bada. Zer arrazoi dute seme-alabekin egunero, une oro,

egoteko aukera izanda ez egin eta dibortziatzerakoan hori nahi izateko? Agian, beste helburu bat dago atzean? Eta azkenik, Guraso Alienazioaren Sindromearekin ere topo egiten dugu.

Legeak ondo babesten al du biktimak?

Beharko luke, kontua da nork interpretatzen duen eta nola. Gaur egun, adibidez, legeak baimentzen du erasotzaileak eta bere umeek harremanik ez izatea, baina ze epailek eteten du? Familia ez da ukitzen, gauza guztien gainetik dago. Teorian, adin txikikoaren ongizateak beharko luke, baina horren gainetik aitaren eskubidea dago. Epaile batzuek esaten dute: «Ume batentzat onena aita eta ama bana izatea da». Aita biolento bat ez da inoiz aita on bat izango. 'A priori', haurrek etxean indarkeria ikusi izana ez da nahikoa arrazoi, aitzak zuzenean eraso egin behar izan die edo harremana kaltegarria izango dela dioen txosten teknikoa behar da.

Save The Children-en datuen arabera, lau neskatatik bat eta zazpi mutiletatik bat abusatu da. Pentsa dezagun gure inguruan zenbat haur abusatu eta heldu abusatzaile dauden. Abusuen gehien-gehienak familia barruan edo inguru hurbilean egiten dira, eta sarri aita da abusatzailea. Frogatzea oso-oso zaila da, ez delako indarkeriaz egiten, umeak ez du zantzu fisikorik... Aitaren hitza seme-alabarenaren kontra da eta maiz zalantzan jartzen da haurrena edo ez dute hitz egiten. Ondorioz, absoluzioak eta artxiboak datoz; baina ez errugabea delako, baizik eta frogarik ez dagoelako.

Ondoren, umeak ez badu aitarekin joan nahi, absolbitua izan bada ere, amari egozten zaio umea manipulatu izana, hau da Guraso Alienazioaren Sindromea. Amen papera izugarria da: edo bortxatzaileari haurra entregatu edo kendu egingo diote.

GAUR 25 eguna

ONDARROAN

19:00etan,
Alamedan

**KONTZENTRAZIOA
+ ANDRABANDA**

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN KONTRAKO
NAZIOARTEKO EGUNA

Oraindik Uda
ETXELA
Ezkerreko Kontseilua
Ezkerreko Kontseilua

SOILIK BAI DA BAIETZ

A25

EMAKUMEAREN
AURKAKO
INDARKERIAREN
KONTRAKO
EGUNA

Meñakako Udala

t. 94 674 21 01 · www.meñaka.eus

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna A25

A27

Bertso saioa musikatua

Izan inurri elkarte (Bularreko minbiziaren kontrako elkarte)

INDARKERIA MATXISTAK AURREZ AURRE IZANGO GAITU!

Muxikakoudala

Muxika, Ibarruri eta Gorozikako herriak

Muxika · t. 94 625 27 01 · www.muxikakoudala.eus

A25

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN
AURKAKO EGUNA

**17:30ETAN
AUTODEFENTSA IKASTAROA.**

**19:00ETAN
ELKARRETARATZEA PLAZAN.**

Mañariko udala



Idoia Arraiza, Emagin elkarteak kidea.

Idoia ZABALETA | FOKU

Erasoak kudeatzeko protokoloak, elkarte eta kolektiboetan ere bai

Elkarte eta kolektiboetan eraso matxisten kudeaketarako protokoloak egiteko

gida ondu du Emagin elkarteak. Justizia feministan oinarrituta, eraso egin

duenaren kanporatzetik edo heriotza sozialetik urruti, birgizarteratze feminista

lortzea du jomugan. Ekainetik euren webgunean eskuragarri dago.

M.A. | ANDOAIN

Emagin, pentsamendu kritiko feminista sustatzen duen elkarte da. Jendarte eraldaketaren alde lan egiten dugu eta horretarako prozedura feministak erabiltzen ditu bere oinarritzko lan esparruetan: formakuntza, ikerketa, ekoizpena eta dokumentazioa.

Azken urteotan gero eta gehiago dira elkarte eta kolektibo mistoetatik jasotzen dituen laguntza eskaerak, haien barruan eraso matxisten kasuak nola kudeatu ez dakitelako. Halakoetan jarduteko protokoloak sortzeko, Bertsozale Elkartearekin edo Euskaltzaleen Topagunearekin prozesu parte hartzaileak gauzatu zituzten eta tresna batzuk sortuak zituzten. Horiek

eskuragarri jartzea «interesgarria» iruditu zitzaion «edozein erakundek bere prozesua egin ez, protokoloa osatu ahal izateko», azaldu du Idoia Arraiza Emaginek kidea.

Izan ere, «beharra» atzeman zuten, halako erasoak gehiago azaleratzen baitira. Identifikatzeko gaitasuna handitu izanaz gain, arduradunaren iritziz, igorera horren zergatia salatzen duenak «sinetsiko eta babestuko» dutela espero duela da. «Jendartean indarkeriaren kontrako jarrera nahiko irmoa lortu da, eta horrek, lotsa edo belduraren gainetik, salatzeri animatzen ditu». Hala ere, ez da beti horrela izaten, eta gerta daiteke eraso jaso duenaren hitza zalantzan jartzen edo egin duenaren alde egitea. Kudeake-

ERALDAKETA

«Jendarte eralda dezakeguna sinisten dugu, pertsonak eralda daitezkeela sinisten dugulako. Feminismoaren lanketa edo maskulinitateena egiten badu, edo egoeraren arabera, terapia pertsonal sakon bat, sinets dezakegu benetan jarrera horiek zuzendu eta ez dituela errepikatuko».

ta are zailagoa da eraso egin duena ezaguna, militantzia kidea edo betiko laguna bada.

Gidak alde teoriko eta praktikoa bana du, talde bakoitzak bere kabuz protokoloa atontzeko erabil dezakeena. Nahiz eta hura jarraitzea nahikoa izan, oraindik ere kanpo laguntza profesionala beharrezkoa dela uste dute sortzaileek: «Ez dakigu gatazkak konpontzeko eta harremanak lantzeko kultura emozional nahikorik dugun gure mugimendu sozial, politiko eta kulturaletan horrelako erronkei autonomoki heltzeko». Inbertsioa bada ere, harremanei eta gatazkei garrantzia emateko modu bat ere badela zehaztu du.

Justizia feministan oinarritutako proposamena da gidan jasotakoa eta bost urratsetan banatu dute prozesua: prebentzioa, aktibazioa, kudeaketa neurriak, jarraipena eta itxiera, eta ebaluazioa. Hiru erpinetan lantzen dute eraso, pentsa ohi denaren kontra, ez baita bakarrik eraso egin eta jaso duenaren arteko arazoa, komunitateak ere ardura du gertatutakoan. «Baimendu» egin du botere harremanak erreproduzitzea eta batzuek baliatzea beste batzuek erasotzeko. Hortaz, ezin zaio erru guztia eraso egin duenari bota. «Konplizitate» hori dagoenez, konponbidez arduratu eta lanketa egin behar du taldeak berriro gerta ez dadin eta zauriak ixteko, beste kide batzuek ere senti baitaitezke mugituak, beldurtuak...

Oinarritik puntara eragin

Erasoak definitzeko icebergaren irudia darabilte. Hau da, intentsitate altuko eraso bat emateko, aurretik jarrera matxistak –hitza zapaldu, norbaiten iritzia kontuan ez hartu– eta intentsitate baxuko asko izan dira. Zenbait jarrerari aurre egiteko protokoloa eraginkorrena ez bada ere, Arraizaren esanetan, «garrantzitsua iruditzen zaigu erasoak definitzerakoan continuum hori ikustea, harremana dutela jarrera matxistek eraso larriagoekin eta guztiekin amaitzen saiatu behar dugula gure taldean».

Esku hartzearen ardatzak eraldaketa eta minaren erreparazioa dira. Salaketa bat jasotzean, eraso egin duen pertsonarekin hitz egin eta ezinbestekoa da berak onartzea egin duen mina. Hala bada eta prozesu bat egiteko prest badago, martxan jarriko da. Ez badu onartzen, aldiz, bestelako neurri batzuek har daitezke salaketa publikoari begira, erantzun soziala... Beti ere, proportzionaltasuna garrantzitsua da, ez direlako neurri berak hartuko egoera bat edo beste gertatzean.

KOMUNITATEA

Pentsa ohi denaren kontra, ez da bakarrik eraso egin eta jaso duenaren arteko arazoa, komunitateak ere ardura du gertatutakoan. «Baimendu» egin du botere harremanak erreproduzitzea eta batzuek baliatzea beste batzuek erasotzeko. Hortaz, ezin zaio erru guztia eraso egin duenari bota.

MINA ONARTU

Salaketa bat jasotzean, eraso egin duen pertsonarekin hitz egin eta ezinbestekoa da berak onartzea egin duen mina. Hala bada eta prozesu bat egiteko prest badago, martxan jarriko da. Ez badu onartzen, aldiz, bestelako neurri batzuek har daitezke salaketa publikoari begira,

Prozesua birgizarteratze feministan oinarritzen da. Egoeraren arabera lanketa bat egin beharko du eta zenbait espaziotan parte hartzeari utzi burutu artean, gehienbat, eraso jasan duenaren ongizatea bermatu eta askatasun osoz bere bizitza egiten jarrai dezan. Konpromisoak hartzen eta benetan ikusten bada saiatzen edo eraldatzen ari dela, kolektiboaren parte izatera buelta daiten. «Jendarte eralda dezakeguna sinisten dugu, pertsonak eralda daitezkeela sinisten dugulako. Feminismoaren lanketa edo maskulinitateena egiten badu, edo egoeraren arabera, terapia pertsonal sakon bat, sinets dezakegu benetan jarrera horiek zuzendu eta ez dituela errepikatuko».

ERASOAK IDENTIFIKATZEKO ETA EMOZIOAK LANTZEKO, AUTODEFENTSA FEMINISTA

Emagin dokumentazio zentro bat izateko sortu zen, baina feminismoa aitortza soziala lortzen joan zen heinean, elkarte bera eta Bilgune Feminista formazio eskaerak jasotzen hasi ziren, eta erabaki zuten Emaginek kudeatzea. Eskaintzaren horren izarra «autodefentsa tailerra da», gehien eskatzen dutena eta hezitzaile gehienek ematen dutena. Bertako kide Idoia Arraizaren hitzetan, «horrek esan nahi du, batetik, beharrezkoak direla eta, bestetik, funtzionatzen dutela, bertan bizitzen dutena eta lortzen dituzten tresnak benetan erabilgarriak direla emakumezkoentzat egunerokoan erasoei aurre egiteko edo lasaiago bizitzeko».

Eraso fisiko bat jasateko probabilitateak «oso gutxi» dira. Bestelakoak, ordea, «egunerokoan jasaten ditugu emakume guztiok», horregatik, beharrezkoa da horiek identifikatzen jakitea eta erantzuteko estrategiak garatzea. Arraizak azaldu duenez, askotan ez dira atzematen errazak. «Ez dakigu zer gertatu den, baina ez gara ondo sentitzen. Garrantzitsua da egoera batzuek ez normalizatzea edo naturalizatzea. Bestela, askotan uste dugu gure errua dela edo ez dela horrenbesterako, ahoberoa edo oso sentibera naizela... Ardura eta errua gure gain jartzen dugu eta gure kontra dator». Gertatutakoa izendatu, eraso edo jarrera matxista hitzak jartzea, «oso garrantzitsua» da mugak jarri eta nork bere burua babestu ahal izateko.

